

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Udalean zerbitzuak telelanaren bidez emateko modalitatea arautzen duen Udal-Araudia onartzea.**

Basauriko Udalak, 2026ko martxoaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Hasiera batean onestea Basauriko Udalean telelanaren bidez zerbitzua emateko modalitatea arautzen duen Udal Erregelamendua, Erabaki honen Eranskin gisa erantsi dena.

Bigarrena: Erabaki hau hogeita hamar (30) egun baliodunez jendaurrean jartzea, Udaletxeko iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egokitzen jotzen dituzten alegazio, erreklamazio edo iradokizun guztiak aurkez ditzaten. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 b) artikulua.

Epe hori igaro ondoren, Udalbatzak epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak ebatziko ditu eta behin betiko onartuko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betiko hartutzat joko da. Behin betiko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua. aipatutako lege-testuaren 65.2 artikulua.

Basaurin, 2026ko apirilaren 28an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

**BASAURIKO UDALEAN ZERBITZUAK TELELANAREN MODALITATEAREN
BIDEZ EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ERREGELAMENDUA****HITZAURREA**

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (apirilaren 2ko 7/1985 Legeak), 4. artikuluan, toki-administrazioei esleitzen die erregelamenduak egin eta beren buruak antolatzeke ahala, eta, beraz, toki-administrazioako eginkizunaren jardura arautzeko eta erabakitzeke ahalmena.

Bestalde, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren) 14. artikuluan jasotzen denez, enplegatu publikoek honako esku-bide indibidual hau dute, beren zerbitzu-harremanaren izaera juridikoa aintzat hartuta: «norberaren bizimodua, lan-arlokoa eta familiartekoa elkarri egokitzea lagunduko dioten neurrietarako eskubidea».

Era berean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuta-ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean adieraz-ten denez, administrazio publikoek ezarriko dute beren funtzionario publikoen lanaldia, eta, langile lan-kontratudunen lanaldia arautzeko araubideari dagokionez, kapitulu horre-tan eta dagokion lan-legerian ezarritakoa hartuko da kontuan.

Bestalde, enpresaburuen eta langileen malgutasun- eta segurtasun-premia komunak bateragarri egiteko, 2001. urteaz geroztik, Europako Kontseiluak eta gizarte-solaskideek lan-arloko malgutasun-akordioak txertatu zituzten. Akordio horien ondorioz, Telelanari buruzko Europako Esparru Akordioa sortu zen, 2002ko uztailaren 16an Bruselan sina-tua, eta erakunde pribatuetan eta eremu publikoan onartu zen.

Telelana zerbitzuak emateko modalitate bat da, zeinetan lana informazioaren eta ko-munikazioaren teknologiak erabiliz egiten baita; beraz, normalean lantokian egiten den jardura bat handik kanpo egiten da, erregulartasunez.

Izan ere, pentsatzekoa da administrazio elektronikoa ezarri denez areagotu egin di-rela telelanaren bitartez bete daitezkeen eginkizunak eta zereginak, lantokian egoteari lotutako eginkizun asko zerbitzua emateko behar diren baliabide teknologikoak dauden edozein tokitatik bete ahal izango baitira.

Irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretuak (Administrazio publikoetan telelana arautzeko presako neurriena eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideena, CO-VID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko) telelanari buruzko 47. bis artiku-lua gehitu zuen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan).

Erregelamendu honek urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Admi-nistrazio Prozedura Erkidearen Legean) jasotako printzipio hauekin bat egiten du: pre-mia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Hortaz, Erregelamendua beharrezkoa da, Basauriko Udalaren Administrazioan zerbi-tzuak telelanaren bitartez emateko prozedura-bideak ezartzeko aukera ematen duelako, eta, gainera, efikazia bermatu egingo delako ahalik eta kostu txikiena izango duen pro-zedura arin baten bitartez. Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honetan jasotako aginduak ezinbestekoak dira interes orokorrak ezarritako eskakizunei erantzuteko. Erregelamenduak ez du eskubiderik murrizten, eta langile hartzaileei ezar-tzen dizkien betebeharrak dira zerbitzuak telelanaren bitartez emateko prozedura arautu eta ordenatua bermatzeko ezinbestekoak direnak, besterik ez.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, Erregelamendua arau-esparru egonkor eta koherente batean txertatu da, eta, beraz, haren edukia bat dator Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legean gaiari buruz ezarritako arauekin.



Era berean, Erregelamenduaren arautzeak efizientzia-printzipioa eraginkor egiten laguntzen du, eta, hala, telelanaren modalitatea ahalik eta kostu txikienekin eta baliabide egokienekin benetan gauzatzea lortzen da.

Arestian aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da beharrezkotzat hartzen artikuluko horretan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea. Izan ere, Toki Administrazio honen, bere mendeko erakundearen edo erakunde horiei atxikitako erakundearen antolamendu-araua besterik ez da Erregelamendua, eta, gainerakoan, ez du eragin nabarmenik Udalaren jardura ekonomikoan, eta hartzaileei ez die betebeharrak garrantzitsurik ezartzen (eskubide bat arautzen delako, ez betebeharrak bat).

Horregatik guztiagatik, langileen ordezkariak entzun ondoren, Basauriko Udalaren Udalbatzak erabaki du zerbitzuak telelanaren modalitatearen bitartez ematea arautzea, jarraian transkribatutako testuaren arabera.

1. artikulua. — Xedea eta aplikazio-eremua

Erregelamendu honen xedea da Basauriko Udalaren Administrazioan zerbitzua telelanaren modalitatearen bidez ematea arautzea.

2. artikulua. — Telelanaren kontzeptua eta helburuak

1. Telelana da zerbitzuak urrutitik eta modu ez-presentzialean emateko modalitatea, lanpostuaren eskumen-edukia, zerbitzuaren premiek ahalbidetzen badute. Administrazioaren bulegoetatik kanpo garatzeko aukera ematen du, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

2. Zerbitzua telelanaren bidez eman ahal izateko, berariazko baimena beharko da, eta modalitate hori eta presentziala bateragarriak izango dira. Telelana borondatezkoa eta itzulgarria izango da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

3. artikulua. — Baldintza objektiboak

Telelanari buruzko Erregelamendu hau behin betiko argitaratu eta 2 hilabeteko epean, eta zerbitzua telelanaren modalitatean ematen hasi aurretik, ataletako buruek lan-unitate bakoitzaren premia arruntak zehaztuko dituzte eta telelana egin dezaketen langile publikoen gehieneko kopurua adieraziko dute, emandako zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko. Ataletako arduradunek hasierako beren aurreikuspenak berrikusi ahal izango dituzte, telelanaren modalitatea zerbitzuaren premietara egokitzeko.

4. artikulua. — Baldintza subjektiboak

1. Erregelamendu honen aplikazio-eremupeko enplegatu publikoek eskatu ahal izango dute zerbitzua lan ez-presentzialaren modalitatean ematea, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Zerbitzu aktiboko egoeran egotea eta modu ez-presentzialean aurrera eraman beharreko lan-prozedurak behar bezain ondo ezagutzea, edo, gutxienez, urtebeteko antzintasuna izatea telelana eskatzen den lanpostuan.
- b) Lanpostuan, telelanaren modalitatean egin daitezkeen eginkizunak eta zereginak betetzea. Ondorio horietarako, honako hauek dira telelanaren modalitatean gara daitezkeen eginkizunak eta zereginak:
 - Dokumentuen tratamendua (dokumentuak idatzi, zuzendu, itzuli eta erabiltzea).
 - Txostenak egitea.
 - Aholkularitza juridiko-ekonomikoa.
 - Proiektuen azterketa eta analisia.
 - Informazio- eta komunikazio-sistemen kudeaketa.
 - Informazio- eta komunikazio-sistemen analisia, diseinua eta programazioa.
 - Ikuskaritza.
 - Ataleko buruaren ustez telelanaren modalitatearen bidez egin daitezkeen beste eginkizunak eta zereginak batzuk.



- c) Dagozkion eginkizunak eta zereginak telelanaren modalitatean egiteko behar diren ezagutza informatiko eta telematiko, teoriko eta praktiko, nahikoak izatea.
- d) Eskaerarekin batera, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, adieraziz bere lana modalitate horretan egiteko beharrezkoak diren bitartekoak baidituela, ekipamendu informatikoa izan ezik, hori Basauriko Udalak hornituko baitu.
- 1. Ez dira baimenduko honako ezaugarri hauek dituzten eginkizunak eta zereginak betetzen dituzten enplegatu publikoen eskaerak:
 - a) Herritarrei arreta eta informazioa emateko eta erregistratzeko bulego-eginkizunak eta -zereginak, aurrez aurrekoak, eta herritarrentzat funtsezkoak diren zerbitzuak.
 - b) Nahitaez zerbitzu presentzialak ematea eskatzen duten eginkizunak eta zereginak. Zerbitzu presentzialak izango dira zerbitzua benetan ematea langilearen presentzia fisikoarekin soilik bermatzen dutenak.
- 2. Artikulu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dira enplegatu publikoak zerbitzua telelanaren modalitatean ematen duen tarte osoan zehar.

5. artikulua. — Baldintza teknikoak eta egiturazkoak

1. Eskaera egiten duten langileek konexio informatikoko sistema egokia eta segurua izan beharko dute beren etxean edo eskaeran adierazten duten lekuan, eginkizunak eta zereginak lantokian beteko liratekeen pareko baldintzetan bete ahal izateko etxean edo esandako toki horretan. Horretarako, Erregelamendu honen IV. eranskinean aurreikusitako eskakizun teknikoak bete beharko dituzte.

2. Egin beharreko lanaren ezaugarriak ikusita, Udalak honako baliabide hauek emango ditu, lanpostua telelaneko modalitatean betetzeko:

- Informatika-ekipo bat.
- Helbide elektronikoko kontu bat.
- Eguneroko lana betetzeko beharrezkoak diren aplikazio informatikoak.
- Telelana egiteko urruneko soluzio seguru bat, lan-baldintza berberekin.

3. Inola ere ez da baimenduko saltokiek, ostatuek, leku publikoek edo bestelako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten Interneterako konexioak erabiltzea, ezta, oro har, jende guztiari eskaintzen zaizkion komunikazio-sareak erabiltzea edo komunikazioaren segurtasuna arriskuan dagoenean erabiltzea ere.

Administrazioaren sistema informatikoekiko konexioa Administrazioak berak erabakitzen dituen sistemen bidez egin beharko da, datuen eta informazioaren irisgarritasuna, bizkortasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko.

4. Telelanean aritzen diren langileek telefono bidezko arretarako linea bat eta/edo posta elektronikoko helbide bat izango dute zerbitzuari buruzko gorabeherak jasotzeko, zerbitzua ematen den ordutegian zehar. Laguntza teknikoa izango da telelana-plataformarekin lotura duten gorabeherak eta aplikazio eta zerbitzu korporatiboei buruzkoak konpontzeko.

5. Ekipamendu informatikoa edo bertan instalatutako aplikazioak oker badabiltza eta, horren ondorioz, etxean lan egin ezin bada eta arazoa egun berean konpondu ezin bada, interesdunak bere lantokira itzuli beharko du hurrengo egunean, eta aipatutako arazo teknikoa konpontzen denean hasiko da berrito lanean telelanaren modalitatean.

6. Udalak behar diren bitarteko teknologikoak eman eta mantenduko dizkie modalitate honetan lan egiten dutenei, atal bakoitzean dagoen aurrekontuaren eta teknologia-baliabideen arabera.

Telelangileak ekipamendua eman ziotenean zuen egoera eta konfigurazio berean mantenduko du, baimendutako tarte osoan zehar. Udal informatikariek edozein unetan berrikusi ahal izango dute langileak erabiltzen duen ekipamenduaren egoera. Zerbitzuak telelanean emateko baimen-aldia amaitutakoan, ekipamendu informatikoa Administrazioari itzuli beharko zaio.

Edozelan ere, enplegatu publikoak aurkitzeko moduan egon beharko du, lanaldian zehar, telefono eta posta elektronikoko bidez.

**6. artikulua. — Zerbitzuak telelanaren modalitatean ematearen iraunaldia**

1. Telelanean aritzeko denboraldia mugagabea izango da, baldin eta telelanean aritzeko baimena eman zeneko inguruabarrak aldatzen ez badira edo interesdunak egoera aldatzea eskatzen ez badu.

2. Telelanean aritzeko aukera amaitzen bada, enplegatua zerbitzuak modu presentzian ematera igaroko da, hilabeteko epean. Bidezko arrazoirik egon gabe langilea ez bada lan presentziala egitera itzultzen, zerbitzua bertan behera utzi duela jo ahalko da eta dagozkion erantzukizunak eskatu ahalko zaizkio.

7. artikulua. — Lanaldiaren ordutegia eta banaketa

1. Lan-ordutegia, malgutasun-aldiak eta nahitaezko presentzia-ordutegia lanaldi presentzialaren berak izango dira. Ordutegia kontrolatzeko sistema eta lanaldi presentziala kontrolatzekoa berak izango dira, Udalak enplegatuen eskura jarriko duen urruneko fitxaketa-modua erabiliko baita.

Telelanaren modalitateko lanaldian behar baino ordu gehiago egiten badira, ordu horiek ezingo dira lanaldi presentziala osatzeko erabili; beraz, lanaldi horretan, lanpostu bakoitzari egunero dagokion lanaldi teoriko osoa bete beharko da.

2. Lanaldi-murrizketa onartuta duten langileek proportzionalki aplikatu beharko dute murrizketa hori lanaldi presentzian eta telelanaren modalitateko lanaldian.

3. Telelanaren modalitatea hilean 10 egunez egikaritu ahalko da, gehienez ere. Salbuespen gisa, zerbitzua emateko premiengatik edo lan-modalitate hori egiten duen langilearen eskaera arrazoituagatik, lanaldia beste modu batera banatzea onartu ahalko da, baina horrelako banaketak ez dira ez orokorrak ez iraunkorrak izango.

4. Eguneko lanaldia ezingo da, inola ere, banatu bi modalitateen artean (presentziala eta telelana).

5. Enpleguari edo zerbitzuaren premiei eragiten dieten gerora sortutako inguruabarrak direla eta, modalitate presentzialaren eta ez-presentzialaren arteko lanaldi-banaketa aldatu ahalko da, eta/edo telelanaren ehunekoa aldi baterako murriztu, edo zerbitzua modalitate horretan emateko baimena eten, ikuskatzailea eta enplegatua ados jarri ondoren. Baimen hori konpromisoen dokumentuan jasoko da.

Hala ere, langilea udal-bulegoetako bere lanpostura bertaratu ahal izango da egoki irizten dionean, eta, betiere, eguneko lanaldi osoan zehar egiten badu edo bulegoko lanpostura bertaratzea eskatzen badiote.

6. Lanaldi presentzialerako lanalditzat ezarriko da indarrean dagoen lan-egutegian zehaztutakoa, eta denbora-tarte horretako absentziak lan presentzian bezala justifikatu beharko dira.

7. Behar bezala justifikatu beharko diren zerbitzuaren premiak direla-eta, hierarkian gorago dagoenak, oro har 48 orduko gutxieneko aurrerapenarekin, eskatu ahalko du zerbitzuak telelanaren modalitatean ematen dituzten langileak lantokian egoteko; hau da, premien presaren arabera, eta salbuespenez, telelanaren modalitatea murriztu ahal izango da.

8. Justifikatutako absentziak alde batera utzita, langileak antolatu beharko dira aintzat hartuta atal bakoitzean modu presentzian lan egiten duten langileen ehunekoa bera beharko dela, une oro. Ehuneko hori atal bakoitzeko buruak zehaztuko du.

8. artikulua. — Telelanean aritzeko baimena lortzeko prozedura

1. Zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimen-eskaerak I. eranskinen agertzen den eskaera-ereduaren arabera egingo dira. Eskaera Basauriko Udaren Egoitza Elektronikoen bidez edo administrazio elektronikoen aplikazioaren bidez aurkeztu beharko da, Giza Baliabideen Atalari zuzenduta.

2. Eskatzaileak eta dagokion ataleko buruak konpromisoen dokumentua eta telelanean aritzeko banakako plana adostuko dituzte, eta organo eskudunak, hamar egun balioduneko epean, ebazpen-proposamena egingo du. Konpromisoen dokumentua eta



tehelanean aritzeko banakako plana Erregelamendu honen II. eta III. eranskinetan daude. Ataleko buruak eskatuz gero, dokumentu horiek dagokion arloaren ordezkariarekin adostu beharko dira.

3. Giza Baliabideen Atalak baldintzak betetzen ote diren egiaztatuko du, eta dagoen ebazpen-proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari.

4. Eskaera aurkezten den datatik hilabeteko epean, eta ebazpen-proposamena ikusita, tehelanean aritzeko baimena emateko edo ukatzeko ebazpen arrazoitua emango da. Gehieneko epea igarotzen bada ebazpenik jakinarazi gabe, eskaera onartu dela joko da.

5. Baimena ukatzen duten ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari eta interesdunei jakinaraziko zaizkie, legez dagozkien errekursoak adierazita.

6. Baimena emateko ebazpenak honako hauek finkatuko ditu:

- a) Zerbitzuak tehelanaren modalitatean ematea baimenduko du, artikuluan honetan ezarritako baldintzetan, eta baimendutako enplegatu publikoa gainbegiratzeaz arduratuko den pertsona nor den adieraziko du. Pertsona hori izango da tehelanean aritzeko den enplegatua atxikita dagoen ataleko arduraduna.
 - b) Tehelanean aritzeko baimenaren hasiera- eta amaiera-data adieraziko ditu. Amaiera adieraziko du, baldin eta interesdunak eskatuta edo zerbitzuaren premientatik baimena ematen den unean amaiera-data aurreikusita badago.
 - c) Ataleko arduradunaren eta eskatzailearen arteko konpromisoen dokumentua erantsiko zaio, baita lan egiteko banakako plana ere.
 - d) Baimena emateko erabakigarria den emaitza bat badago, lehentasunezko irizpidea zehaztuko du.
 - e) Jakinaraziko du tehelanean aritzeko baimena automatikoki amaituko dela 16. artikuluan agertzen diren arrazoietakoren bat baldin badago.
7. Eskaeren kopurua 4. artikuluan zehaztutako antolamendu-premien arabera berrantolatu baimendu daitezkeenak baino handiagoa bada, hasierako eskaera baimentzea eragin zuten inguruabarrak berrikusiko dira, sei hilean behin.

9. artikulua. — *Ukatzeko arrazoiak*

1. Honako hauek izango dira zerbitzua modalitate ez-presentzialean emateko baimen-eskaerak ukatzeko arrazoiak:

- a) Baimena eskatu duen enplegatua atxikita dagoen atalak ez betetzea 4. artikuluan ezarritako baldintzak.
- b) Langileak ez betetzea 5. artikuluan ezarritako baldintzak.
- c) Langileak ezarritako helburuak bete ez izana, tehelanean aritzeko aurreko aldia.
- d) Zerbitzuaren premiak behar bezala beteta ez geratzea eta eskatzailea atxikita dagoen organoaren txostenak hala egiaztatzea.
- e) Azpiegitura teknologikoen alorreko mugak izatea, edo konektagarritasuna bermatzeko aukerarik ez izatea lantokian. Horiek biak Udaltzaia Informatika Atalak egindako txostenaren bidez egiaztatuko dira.

2. 1. apartatua aipatutako arrazoietakoren bat dagoela egiaztatzen bada, langile-arloan eskumena duen organoak emango du tehelanean aritzeko eskaera ukatzen duen ebazpen arrazoitua.

10. artikulua. — *Eskumenak*

1. Giza Baliabideen atalburua da ebazpen-proposamena emateko eta tehelanaren modalitatean bete beharreko zereginak, eginkizunak eta helburuak zehazteko organo eskuduna, dagokion ataleko buruak txostena egin ondoren. Tehelanean aritzeko eskaerak ataletako buruenak badira, txostena idazkari nagusiak egingo du.

2. Alkateak du tehelana baimentzeko eskumena.

3. Tehelana egiten duen pertsona atxikita dagoen ataleko buruak gainbegiratuko ditu modalitate horretan lan egiten duten enplegatu publikoak.

**11. artikulua. — Baimena emateko lehentasun-irizpideak**

1. Zerbitzua telelanaren bidez eman nahi duten enplegatu publikoak hainbat direnean, Erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, atal berekoak badira, eta administrazio-antolamenduko arrazoiak direla-eta, edo onartzen den gehienekoa gainditzen delako, ezin bazaie denei eman lan-modalitate horretan aritzeko baimena, behean ezartzen diren taldeetan sailkatutako honako inguruabar hauek baloratuko dira, bete egiten direla egiaztatu ondoren:

A) 1. taldea:

- Genero-indarkeria pairatu duten emakume langileak.
- Desgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten langile publikoak. Desgaitasun hori urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen Errege Dekretuaren) IV. eranskinean agindutakoaren arabera egiaztatuko da.
- Gaixotasun oso larria eduki izanaren ondorioz sendatze-prozesuetan eta tratamendu onkologikoetan dauden langileak.
- Haurdun dauden emakume enplegatu publikoak.

B) 2. taldea:

- 0-3 urte bitarteko haurrak zaindu behar dituzten langileak.
- Desgaitasuna duten, mendekoak diren edo zaintza zuzenean, modu jarraituan eta iraunkorrean behar duten odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko ahaideak zaindu behar dituzten langileak.
- Familia gurasobakarrak.

C) 3. taldea: 3 urte eta egun batetik 14 urtera bitarteko semea edo alaba zaindu behar duten langileak.

D) 4. taldea: Gainerako enplegatu publikoak

2. Unitate organiko berean eskatzaile bat baino gehiago egonez gero 1., 2., 3. eta 4. taldeetan ezarritako egoeretan, eta eskatzaile guztiei ezin bazaie baimena eman zerbitzuak telelanaren bidez aurrera eramateko, sei hilean behin nahitaez txandakatzeko sistema ezarriko da.

3. Ezkontideak, izatezko bikoteak edo ezkondu gabeko bikote egonkorak diren enplegatu publikoak artikulua honetan aurreikusitako inguruabarretako batean badaude, bikotekide bati bakarrik eman ahalko zaio baimena telelanean aritzeko.

12. artikulua. — Konpromisoen dokumentua

1. Konpromisoen dokumentua da enplegatu publikoak eta haiek gainbegiratzear arduratzen den pertsonak zerbitzuak telelanaren araubidean emateari dagokionez hartzen dituzten betebeharrak formalizatzen dituen baliabidea. Agiri horren eredia Erregelamendu honen II. eranskinean dago.

2. Dokumentuaren edukia gainbegiraleak eta enplegatu publikoak ezarri beharko dute, eta, ondoren, alkatearen edo txostena emateko izendatutako organoaren aldeko txostena beharko da. Telelanean aritzeko baimena emateko ebazpenaren eraginkortasuna agiriaren edukia betetzeari lotuta geratuko da, eta konpromisoen dokumentua indarrean egongo da ebazpena indarrean dagoen bitartean.

3. Agiri hori erantsi egingo zaio zerbitzuak telelanean emateko baimena ematen duen ebazpenari.

4. Konpromisoen dokumentuak honako alderdi hauek jasoko ditu:

- i. Urruneko bulegoaren edo bulegoen kokapena.
- ii. Interkonexiorako ezarritako gutxieneko aldia, zeinak bat etorri beharko baitu nahitaezko presentzia-ordutegiarekin. Fitxatuz egiaztatuko da, Enplegatuaren Atarirako urruneko sarbidea erabiliz.



- iii. Lana antolatzeko moduaren deskribapena eta telelanean aritzeko banakako plana une oro eguneratuta edukitzeko konpromisoa.
- iv. Zerbitzuak telelanaren modalitatean emango diren aldia.
- v. Telelanaren modalitatean emango diren lanaldien zehaztapena. Lanaldi horiek modu uniformean ala ez-uniformean banatu ahalko dira, baimena indarrean dagoen bitartean.

5. Konpromisoen dokumentua aldatu ahal izango da 9. artikulua 8. atalean ezarritakoaren arabera edo Erregelamendu honen bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa aplikatuz.

6. Jarraipena eginda lortzen diren emaitzen berri emango zaie, aldian-aldian, enplegatu publikoak bere ardurapean dituen langileen organoari eta Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoari.

13. artikulua. — *Telelanari buruzko banakako txostena*

1. Telelanari buruzko banakako txostena da telelanaren modalitatean zerbitzuak ematen dituen enplegatu publikoaren jardueraren jarraipen eta kontrol telematikoaren egiteko baliabidea. Txosten horren eredia Erregelamendu honen III. eranskinean dago.

2. Dokumentu horrek egunean egon beharko du, une oro. Modalitate horretan emandako lanaldi bakoitzaren ondoren beteko da, eta enplegatuak egindako aurrerapeak jasoko ditu.

3. Telelana egiteko baimendutako langileak atxikita dauden ataleko arduradunak telelanean aritzeko banakako plana berretsi beharko du, astero. Era berean, dokumentu hori edozein unetan eskatu ahal izango dute alkateak, hark izendatutako organoak edo Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoak.

14. artikulua. — *Eskubideak eta betebeharrak*

1. Zerbitzuak telelanaren modalitatean ematen dituzten langileek beren borondatez aukeratuko dute modalitate hori, eta gainerako langileek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte, zerbitzua modu presentzialean ala ez-presentzialean emateagatik dagozkienak izan ezik.

2. Zerbitzuak telelanaren bidez emateak ez du inola ere ekarriko ordainsaria jaitea edo igotzea.

3. Telelanean aritzen den langileak egindako jardueren zerrenda bidali beharko dio dagokion arduradunari, baldin eta eskatzen bazaio, eta, betiere, Administrazioak gainbegiratzeko duen ahalmena alde batera utzi gabe. Izan ere, Administrazioak langileak laneako betebeharrak eta eginbeharrak (bitarteko telematikoaren erabilera barne) betetzen dituela egiaztatzeko zaintza eta kontrolerako neurririk ustez egokienak har ditzake, langilearen duintasunari zor zaion begirunea zainduta. Ildo horretan, ordutegia eta lanaldia betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak ezarri eta egokitu ahal izango dira, presentzia kontrolatzeko sistemaren bidez.

4. Telelangile izaerak bakar-bakarrik iraungo du zerbitzuak modalitate ez-presentzialean ematen diren aldian zehar, eta langilea modalitate horren bidez betetzen den lanpostuan dagoen bitartean; horiek biak, gainera, metagarriak izango dira. Era berean, baimena ondorioz gabe geratuko da langilea lanpostuz aldatzen bada, baina, nolana ere, beti izango du aukera beste eskaera bat egiteko.

5. Telelangile-izaera enplegatuari modu indibidualean esleitzen zaio, eta, beraz, langile horrek lanpostua uzten badu, lanpostu hori berori ondoren bete dezakeen langilea ez da automatikoki telelangiletzat hartuko.

6. Telelangileak arreta eta ardura berezia jarri beharko dio segurtasunari, zibersegurtasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzeari, eta une oro saiatu beharko du komunikazioen isilpekotasuna bermatzen.

7. Telelanaren modalitatean lan egiten duten langileek deskonexio digitalerako eskubidea dute, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abendua-



ren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 88. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bermatu beharko zaie ezarritako lan-ordutegitik kanpo atsedeen-denbora eta intimitate pertsonala errespetatuko zaizkiela.

8. Bitarteko telematikoa erabiltzeak eta lan-prestazioa gailu automatikoen bidez kontrolatzeak behar bezala bermatu beharko dute intimitaterako eta datuen babeserako eskubidea, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako baldintzetan eta erabilitako bitartekoen egokitasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera.

9. Telelangileak, zerbitzua modalitate ez-presentzialean ematen duenean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia beteko du, eta ezagutzen dituen gaien inguruan behar den zuhurtasuna gordeko du, bere eginkizunak modalitate presentzialean egiten dituen bezalaxe.

15. artikulua. — *Telelana aldi baterako etetea*

1. Zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimena aldi baterako eten ahal izango da enplegatuari edo neurria justifikatzen duten antolamendu-premiei eragiten dieten, eta gerora sortu diren inguruabarrak tartean direnean.

2. Gerora sortutako inguruabarrak izango dira telelana baimentzeko unean kontuan hartu ezin izan zirenak, baina telelana egiteko baimena ez emateko 16. artikuluan jasota dauden arrazoiaren artean ez daudenak.

Greba-deialdia egiten bada, zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimena eten egingo zaie langile guztiei.

3. Prozedura izapidetzean, eraginpeko langileari entzungo zaio. Justifikazio-inguruabarrak egiaztatu ondoren, langileen arloan eskumena duen organoak baimena etete-ko ebazpen arrazoitua emango du, eta, bertan, etete-epea zehaztuko du.

4. Telelanean aritzeko baimena etenda dagoen aldia ez da zenbatuko telelana baimenduta zegoen gehieneko aldiaren ondorioetarako.

5. Etenaldia amaitu ondoren, joko da telelanean aritzeko baimendutako aldia etenaldiaren iraupen berean luzatuko dela, baldin eta denbora jakin batean aritzeko baimena eman bada.

16. artikulua. — *Administrazioak automatikoki baliogabetzea eta langileak amaitzea*

1. Zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimena ondoriorik gabe utzi ahal izango da, automatikoki, honako arrazoi hauengatik:

- i. Behar bezala justifikatutako antolamendu-premiengatik.
- ii. Ezarritako epea igarotzeagatik, epe jakin baterako baimendu denean, luzapena izan ezean.
- iii. Ezarritako eginkizunak, zereginak eta helburuak ez betetzeagatik.
- iv. Enplegatu publikoak betetzen dituen eginkizunak edo zereginak nabarmen aldatzeagatik.
- v. Enplegatu publikoa eta Administrazioa ados jarri izanagatik.
- vi. Enplegatu publikoak lanpostua utzi izanagatik. Haren ordezkioak dagokion eskaera egin beharko du, zerbitzuak telelanaren modalitatean eman nahi baditu.

2. Baimena baliogabetzeko prozedura izapidetzean, eragindako langileari entzungo zaio. Atal honetan azaldutako arrazoiaren bat dagoela egiaztatu ondoren, 10.2 artikuluan aurreikusitako langileen arloko organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, zerbitzua lan-modalitate ez-presentzialean emateko baimena baliogabetzeko.

3. Enplegatu publikoak telelanaren modalitatea aurreikusitako amaiera-data baino lehen amaitzeko eskatu ahal izango du, astebete lehenago jakinarazita. Kasu horretan ere, langileen arloan eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua emango du, zerbitzua lan ez-presentzialaren modalitatean emateko aldia amaitzeko.

**17. artikulua. — Modalitate presentzialera itzultzea**

Zerbitzua telelanaren modalitate ez-presentzialean emateko aldia amaitzen denean, enplegatua modalitate presentzialera itzuliko da, zerbitzua modu presentzialean ematera itzultzen denean indarrean dagoen lanaldi-araubidearekin.

18. artikulua. — Laneko arriskuak prebenitzea

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, aldez aurretik, eskatzailearen telelaneko lanpostua ebaluatuko du, apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuan (lantokietako segurtasunari eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen Errege Dekretuan) eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian xedatutakoaren arabera. Horretarako, ebaluazioa galdetegi baten bitartez egin ahal izango da. Galdetegia Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak diseinatu, eta eskatzaileak beteko du. Urruneko bulego gisa izendatzen den tokiari buruzko dokumentazio grafikoa erantsiko zaio galdetegiari.

2. Telelanaren modalitatean aritzen diren enplegatu publikoek arriskuen ebaluazioan ezarritako neurriak eta jarraibideak aplikatu beharko dituzte beti, baita Prebentzio Zerbitzuak emandako nahitaezko prestakuntza eta informazioa ere. Hala eta guztiz, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak laguntza eta aholkularitza emango die, behar dutenean.

3. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak lanpostuan neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen badu, langilearen ardura izango da neurri horiek ezartzea.

19. artikulua. — Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoa

Alkatetza-dekretu bidez, Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoa eratuko da. Zerbitzuak telelanaren bidez modu ez-presentzialean emateko modalitatearen jarraipena egiteaz arduratuko den organoa izango da batzorde hori, eta Giza Baliabideen Ordezkaritzari atxikita egongo da.

Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Langileen arloan eskumena duten organoek helarazten dizkioten gorabeherak aztertzea eta gorabehera horiek konpontzeko neurriak proposatzea.
- b) Zerbitzuak telelanaren bidez ematearen funtzionamendua ebaluatzeko galdetegiak egitea eta baloratzea, baita modalitate horretan aritzen diren enplegatu publikoen, hierarkian gorago daudenen eta erakundeko gainerako langileen gogobetetasun-indizea ebaluatzeko galdetegiak egitea ere.
- c) Zerbitzua telelanaren modalitatean egitea nola ezarri eta garatu den aztertzea.
- d) Esleitzen zaizkion beste eginkizun guztiak.

Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoaren ohiko bilerak sei hilean behin egingo dira, gutxienez, eta bereziak, berriz, batzordeburuak egokitzen jotzen duenean.

Telelanaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua Erregelamenduaren arabera egingo dira, alkatetza-instrukzio bidez, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera arautuko dira. Basauriko Udaleko langileen ordezkaritza sindikalaren presentzia bertutuko da, baita emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK**Lehen Xedapen Gehigarria. — Aparteko eta presako premia duten interes publikoko inguruabarrak**

Aparteko eta presako premia dagoenean eta/edo legez egiaztatutako interes publikoko arazoak direla-eta, alkateak erabaki ahal izango du, negozioak kolektiboak egin ondoren, une horretan zerbitzuak telelanaren bidez ematen ari ez den aplikazio-eremuaren barruan ez dauden enplegatu publikoek zerbitzuak telelanaren modalitatearen



bidez ematea, nahiz eta 4. eta 5. artikuluetan aurreikusitako baldintzak ez bete. Kasu horretan, dagokion konpromisoen dokumentua eta telelanean aritzeko banakako plana formalizatu beharko dira, berdin-berdin. Baimenak aurreikusi ahalko du asteko lanaldiaren banaketa modu presentzialean ere egitea eta interkonexio-aldiak 7. artikuluan ezarritakoak ez izatea.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta hogeia egunetara.



I. ERANSKINA

LANALDIA TELELANAREN MODALITATEAN EMATEKO BAIMEN-ESKAERA**Datu pertsonalak**

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	☐ NANA ☐ AIZ ZK.
Sexua	Emakumea	Gizona	
Helbidea (osoa)			Posta-kodea
Herria		Probintzia	
Telefono finkoa	Telefono mugikorra	Norberaren helbide elektronikoa	
Aitortutako desgaitasuna eta puntuak mugikortasun urriagatik			
Basauriko Udalean zerbitzuak telelanaren modalitatearen bidez ematea arautzen duen erregelamenduaren 12. artikuluan jasotako beste baldintza batzuk ☐ Bai ☐ Ez			

Lan-arloko datuak

Lanpostuaren izena ²	LPZ-ren ZK. ²	Lanpostua dagoen herria
Atala, erakundea edo erakunde publikoa	Zerbitzua, unitate baliokidea edo destino-zentroa	
Taldea-azpitaldea / lanbide-taldea	Especialitate mota / lanbide-kategoria	
Administrazio-egoera ³		
Lotura juridikoa ☐ Karrerako funtzionarioa ☐ Bitarteko funtzionarioa ☐ Langile lan-kontratudun finkoa ☐ Langile lan-kontratudun mugagabe ez-finkoa ☐ Aldi baterako langile lan-kontratuduna		Bateragarritasuna baimentzea edo onartzea ⁴ ☐ Bai ☐ Ez
Lanpostuko telefono-zenbakia	Lanpostuko helbide elektronikoa	

**HONAKO HAU AITORTZEN DUT, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN:**

- | |
|---|
| — Telelanaren bidez lan egiten hasten naizen egunean, deialdian definitutako ezaugarriak dituen ekipamendu informatikoa eta komunikazio-sistemak izango ditudala edo izateko konpromisoa hartzen dudala, eta telelanak irauten duen bitartean baldintza horiek mantenduko ditudala; horrez gain, baimena ematen dut eskumena duen organoak horiek aztertzeko. |
| — Eskabide honetan emandako datu guztiak egiazkoak direla. |

ZERA ADIERAZTEN DUT:

Basauriko Udalean zerbitzuak telelanaren modalitatearen bidez ematea arautzen duen Udal Erregelamenduaren arabera,

HAUXE ESKATZEN DUT:

Zerbitzua modu ez-presentzialean eta telelanaren modalitatearen bidez emateko baimena.

.....n, 20...(e)koren ...(e)(a)n.

Izpta.:

ALKATEA/PRESIDENTEA/UDALEKO ORGANO ESKUDUNA



ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA (KOPIA SOILA)

☐ Beste batzuk: adierazi zein agiri eransten diren

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

— IDATZI AURRETIK, IRAKURRI ARRETAZ ESKAERAREN APARTATUAK

— IDATZI ARGI, ETA LETRA LARRIZ.

1. Honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak gutun-atal itxi batean eman-go dira, aurkeztutako eskaeratik bereiz.
2. Adieraziko dira bai langilea gaur egun betetzen ari den lanpostuaren izena, bai lanpostu-zerrendaren zenbakia.
3. Adieraziko da enplegatu publikoak gaur egun duen administrazio-egoera.
4. Adieraziko da ea beste lanpostu edo jarduera batekin bateragarri izateko baimenik edo aitorenpenik duen.
5. Eskabideak alkateari edo hark adierazitako organo eskudunari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazten dizugu eskaera honetan emandako datuak Datuak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko ditugula. Horren helburua da Basauriko Udalean zerbitzuak modu ez-presentzialean eta telelanaren modalitatearen bidez emateko baimenei buruzko espedienteak izapidetzeko informazioa kudeatzea.

**II. ERANSKINA****KONPROMISOEN DOKUMENTUA**

..... (telelana eskatzen duen langilearen izena) jaunak/andreak, (NANA:), funtzionarioak/langile lan-kontratudunak, Kidegokoak/Eskalakoak/Espezialitatekoak/Kategoria-koak edo adierazitako eskumen funtzionala edo espezialitatea duenak, zenbakiko (lanpostuaren izena) lanpostuari atxikita dagoenak eta zerbitzuak telelanaren bidez ematea eskatzen duenak,

HONAKO HONI:

..... (alkatea edo hark aukeratutako organoaren arduradunaren izena) jauna/andrea, zeina zerbitzuak telelanaren bidez emateko baimena eskatzen duen langilearen arduraduna baita.

Basauriko Udalean zerbitzuak telelanaren modalitatearen bidez ematea arautzen duen ERREGE-LAMENDUaren 8. eta 13. artikuluetan jasotako baldintzetan,

ZERA ADIERAZTEN DIO:

1. Zerbitzuak telelanaren bidez emateko modalitatea, aipatutako Erregelamenduaren 2. artikuluan araututakoa, hartzen duela.
2. Zerbitzuak modalitate horren bitartez emateko erabiliko duen bulegoa edo bulegoak hemen kokatuta egongo direla:
3. Bere lana honela antolatuko duela:
4. Telelanean aritzeko banakako plana egunean edukiko duela, une oro.
5. Lanaldi ez-presentzialetan tratatuko dituen datuen babesa eta konfidentziasuna bermatzeko, datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia beteko duela.
6. Denbora-tarte honetan zehar emango dituela zerbitzuak telelanaren bidez: (gehienez ere sei hilabetez), dagokion luzapena eskatzeko eskubidea alde batera utzi gabe.

Egun hauetan emango dituela zerbitzuak telelanaren bidez: (zehaztu asteko egun kopurua eta zer egun izango diren zehazki, kontuan hartuta hiru lanegun presentzialak izango direla, nahitaez; baimena indarrean dagoen bitartean lanaldi ez-presentzialak modu erregularrean banatuko ez badira, adierazi nola antolatuko diren).

OHARRAK:

This image shows a full page of white paper with horizontal dotted lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page, providing a guide for handwriting practice. There are no margins, text, or other markings on the page.

Lekua, data		
Telelana eskatzen duen langilea Izpta.:	Atalburua Izpta.:	Giza baliabideek ontzat emana Izpta.:



III. ERANSKINA
TELELANEAN ARITZEKO BANAKAKO PLANA

Enplegatua	
Betetako lanpostua	
LPZ-ren zk.	Helbide elektronikoa
Atala erakundea	
Gainbegiralea	
Gainbegiralearen lanpostua	

(Basauriko Udalean zerbitzuak telelanaren modalitatearen bidez ematea arautzen duen Udal Erregelamendua, XXXX(e)ko XXXXXXXren XX(e)koa, 14. artikulua).

**1. orria (lanaldi ez-presentzial bakoitzerako orri bat irekiko da).****Data:****Interkonexioa:**

- Hasteko ordua: Amaitzeko ordua:
- Hasteko ordua: Amaitzeko ordua: Egindako jarduera:
-
-
-
-
-
-

Beste gai batzuk:

Enplegatu publikoa	Gainbegiralea
Izpta.:	Izpta.:

**IV. ERANSKINA****LANALDIA TELELANAREN MODALITATEAREN BIDEZ EMATEKO BALDINTZA
TEKNIKOAK ETA EGITURAZKOAK**

1. Administrazioak emandako ekipamendu informatikoak honako hauek izan beharko ditu:
 - VPNa.
 - Interneterako konexioa, gutxienez 20 megabyteko banda-zabalera gomendatua duen wifi bidez.
 - Txartel-irakurgailua.
2. Lanposturako urruneko sarbidea izanez gero, honako hauek beharko dira:
 - Interneterako konexioa, gutxienez 20 megabyteko banda-zabalera gomendatua duen wifi bidez.
 - Web-nabigatzailea:
 - Firefox.
 - Google Chrome.
 - Microsoft Edge.
 - Microsoft Internet Explorer.
 - Opera.
 - Safari.
 - PC ordenagailurako (Windows) Sistema eragilearen bertsioa: Windows 11.

Kasu guztietan, gomendatzen da bozgorailuak, mikrofonoa, web-kamera, gutxienez 2 gigabyteko RAM memoria eta 80 gigabyteko disko gogor bat edukitzea.